

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua funtziona dezan hainbat elementu garrantzitsu daude, baina bereziki, bezeroekiko harremana zaindu behar dugu gure proiektua ondo joateko; izan ere, oso ohikoa ez den produktu bat prestatu dugu. Gure bezeroei ondo azaltzen ez badiegu gure txipa, askok ez dute erosiko arriskutsua edo arraroa iruditzen zaielako. Horretaz gain, lokal baten beharra dugu eta gutxienez 5 langileren laguntza ere. Hein batean, lokalean gutxienez bi langile egon beharko dira sare sozialetaz arduratzen, bezeroi mezuak bidaltzen edo edozein zalantza argitzeko prest. Gainera, produktua lokalean bertan salduko denez bezeroa konbentzitzeko gaitasunak dituen norbait ezinbestekoa da. Baliabide fisikoekin jarraituz, telefono zenbakia funtsezko baliabidea da gure produktuarentzat, azken batean, gurekin kontaktuan jartzeko ezinbestekoa izango da. Horretaz gain, lokalean bertan ordanagailu baten erabilgarritasuna garrantzitsua izango da.